


2022

GARIZUMA

HAURTZAROA



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO



Bat gara, compartimos camino

Cuaresma 2022 Garizuma

"Por una Iglesia sinodal: comunión, participación y misión"

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

AURKEZPENA

Fede-zabalkunde eta Katekesirako, Karitate eta Zuzentasunerako, Misioetarako, Caritaseko ordezkari-tzetatik, Liturgiako Ordezkaritzarekin, ETPlarekin eta EEBrekin koordinatuta, Garizuma-aldirako proposamena bultzatu nahi da Elizbarrutiko elkarte, katekesi, ikastetxe, erakunde eta abarretan, Frantzisko Aita Santuak «Sinodo-seneko Elizaren alde: elkartasuna, partaidetza eta misioa» izenburuarekin deitu duen Elizaren Sinodoan sakondu ahal izateko.

Helduei zuzendutako proposamena da nagusiki, baina gure elkarteetako neska-mutikoak ere Eliza dira.

Garizuma-aldia, prestaketa-aldia, entrenamendua da Pazko aldira iristeko. Bat gara, elkarrekin bide eginez goiburua proposatu zaigu eta horren inguruan jardungo dugu entzutearen, bidearen, bidelagun izatearen,... esperientzietan sakontzeko.



Hona hemen gure proposamena; lagungarri izango ahal da katekistentzat nahiz mutiko eta neskatoentzat, benetan... bat garela, elkarrekin bide egiten dihardugula sentitzeko.

Jesusek erakusten eta irakasten digunaren haritik, elkarrekin bide egiteak, hau da, bidelagun izateak, elkarrekin gauzak egiteak, elkar entzun eta denok baliotsu eta beharrezko garela ikusteak zein esperientzia positiboak dakarzkigun ikusarazi mutiko eta neskatoei katekesiko saio batean.

Zuen taldeetako (1-4 kurtsoak) umeen adinaren arabera, proposamen guztiak gara daitezke edo baten bat aukeratu.

Aurrera!

GARAPENA

1. **"Bideari lotuko gatzazkio".** Saioari hasiera emateko, bide baten zatiak (l. eranskina) jarriko ditugu buruz behera letrak ez ikusteko; horren inguruko saioa izango dela azalduko dugu. Honelako galderak egin ditzakegu neska-mutikoak koka daitezen:

- Zein alditan gaude?
- Ba ote dakigu GARIZUMA-ALDIA zer den?



BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

- **Garizuma-aldiaren ezaugarri nagusiak.** Pazko-aldira garmatzen prestaketa-aldia da; otoitz egiteko, Jesusek begiratzen zuen bezala begiratzen ikasteko, hurkoarekin bakeak egiteko, elkartasunerako aldia. Bide hau, guk bezala, Pazkoa ospatzeko prestatu egin nahi duten beste batzuekin batera egiten dugu bide hau. Hainbat lekutan, gozokiak ere prestatzen dituzte aldi honetarako, esate baterako Pazko-arrautzak.
- Nola egingo dugu bide hau? Bakarka? Ez ote da beste batzuekin barera, elkarri lagun eginez, egitea?

2. **"Elkartean bide eginez".** Elkarrekin bide egite hori saioaren ardatz izango dela azaldu ondoren, ...

- Bideoa ikusi, **"Pinguino, inurri eta karramarroen talde-lana"** ¹



BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN ALA
ESKANEATU QR KODEA



- Baloreak, **"Elkartasuna"**,² abestia entzun elkar lagunduz bidea erraz eta atsegingarriagoa dela ikusarazteko eta aukera hori sustatzeko. II. eranskinean aurkituko duzue letra euskaraz eta gaztelaniaz. Elkarriketan jardungo dugu.



BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN ALA
ESKANEATU QR KODEA



- Elkarriketarako galderak:
 - Nola lortzen dute pinguinoek onik egotea? Eta, karramarroek? Eta, inurriek?
 - Abestiak, zertaz hitz egiten dau?
 - Bideo eta abestiaren eritzian, non dago norbere erdigunean egoteko, zein izango litzateke kakos?

3. **"Guztiok gara elkartea".** Bideoaren edo abestiaren arabera, bide honetan elkarrekin, guztiok bat eginda, joatea da onena. Bibliara joz gero, gauza bera irakurriko dugu.

1 Kor 12, 12-22. 26-27 pasartearen moldatutako idazkia (III. eranskina) irakurri edo kontatuko dugu. Irakurgai honetan, Paulo Jesusen jarraitzaileak konparazioa egiten du: gutariko bakoitza gorputz-adar bat gara, desberdina, baina ezinbesteko eta garrantzitsua, guztiok dugu nabarmentzen gaituen, bat gatozen ezaugarriren bat, besteei laguntzeko erabil dezakeguna.

¹ <https://www.youtube.com/watch?v=S5QruCHANww>

² <https://www.youtube.com/watch?v=2G1zQkH28Dg>

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

Jarduera honetan aurrera egiteko, IV. eranskineko irudiaren silueta ebakita izango dugu; puzzle-zatiak egingo ditugu eta taldekide bakoitzari zati bat emango diogu. Marrazkiaren atzealdean beren izena jarriko dute (nagusienek, gainera, beren buruaren ezaugarriren batean pentsatu eta izenarekin batera idatz dezakete)

Hau egin ondoren, puzzlea osatuko dugu, zatiak elkarren ondoan itsatsiz. Buelta ematean, guztiok Jainkoaren seme eta alaba garela ikusiko dugu. Elarrekin Eliza osatzen dugu eta elkarte gara.



Gogoetarako, ...


- Nortzuko osatzen dugu gorputz hori?
- Zer irudikatzen du gorputzak?

4. **"Nola egiten dugu bidea?"**. Bide honetan, denok garela baliotsu eta garrantzitsu, eta onena elkarrekin bide egitea dela ikusi dugu. Baina, nola egiten dugu bidea besteekin batera?

Lehiaketa erara egiten dugu bidea, beti lehen izaten saiatuz eta atzean nor uzten dugun axola gabe? Entzun gabe eta gainerakoei jaramonik egin gabe egiten dugu bidea?

Bi joko erraz aurkeztuko ditugu elkarrekin bide egiteko "era" lantzeko. Horien bidez, mutiko eta neskatoak entzutearen garrantziaz jabetuko dira eta Jesusek gure ingurukoekin zein jarrera izan behar dugun jakingo dute (V. eranskina).

Bideari ekiteko ezinbesteko jarrera eta jokaerak geure egin ondoren, "BAT GARA" bideko goiburuen letrak agerian jarriko ditugu, VI. eranskineko galderak erantzunez. Horien bidez ikusiko dugu zein baliok lagunduko digun elkarrekin bide egin eta helmugara, Berpizkunde-pazkora iristen. Galderak erantzun eta balioak asmatu ahala, bideko goiburuen letrak agerian jarriko ditugu (I. eranskina).



5. **"Katekesitik eukaristiara"**. Elkarrekin bide egiteko, BAT IZATEKO lagungarri ditugun 7 balio ezagutu ditugu. Gogoratzen duzue zeintzuk diren?

Gorputzean atal guztiak garrantzitsu eta elkarrentzat ezinbesteko diren bezala, Elizan, eta gure parrokan, pertsona guztiok gara garrantzitsu eta denok ditugu besteen zerbitzura jar ditzakegun askotariko gaitasunak, horrela elkarrekin aurrera egiteko.

Aurreko ariketan antzeman ditugun balioen artean bat aukeratuko dugu, hau da, talde bezala hobetu eta Garizuma-aldi honetan gauzatu nahiko genukeen balioa. Horixe izango da gure konpromisoa.

Adostasunera heldu ondoren, kartulinan bidearen zati bat (BAT GARA ibilbidearen zatiaren antzekoa) marraztu eta idatzi hor hizki handiz aukeratutako konpromisoa.

Katekesiko talde bakoitzak bere bide-zatia aurkeztuko du igandeko Eukaristian, denok batera bide egiten dugula irudikatzeko.

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



ELKARTEAN OTOITZ EGIN

Taldean, VII. eranskineko otoitza egin dezatela saioari amaiera emateko. Haurrei kopia bana ere eman diezaiekegu, etxera eraman eta familian egin dezaten.

AURTEN ERE, JESUSEN HERIOTZA ETA BIZTUERA OSPATZEKO
PRESTATU NAHI DUGU.

ELIZAK GARIZUMA-ALDI DEITZEN DIO PRESTAKETARAKO ALDI HONI
ETA HAUSTERRE-EGUNEZ HASTEN DA HAUTSAREN EZARPENAREKIN.

KATEKISTEN LAGUNTZAREKIN,
ALDI HAU ENTRENAMENDU BEZALA BIZI NAHI DUGU,
GEUK ERE JESUSEN BEGIRATZEN ZUEN BEZALA BEGIRA DEZAGUN.

FRANTZISKO AITA SANTUAK
"ELKARREKIN BIDE EGITERA" DEITZEN GAITU ELIZTAR GUZTIOK,
ELKARREKIN PENTSA DEZAGUN ZER NOLAKO ELIZA,
PARROKIA, TALDE... NAHI DUGUN.

LAGUN IEZAGUZU GURI,
ELKARTEKO TXIKIOI, NOLAKO ELIZA NAHI DUGUN
GURE NAGUSIEI ESAN DIEZAIEGUN.

GURE NAGUSIEK BERRESKURA DEZATELA GU BEZALA
HAUR IZAN ZIRENEKO FRESKOTASUN ETA IRUDIMENA.

ETA AMETS EGIN DEZATELA BETI BERAIENTZAT ETA GURETZAT
NAHI DUTEN ELIZA, ETORKIZUNERAKO ELIZA.

EZ DEZATELA JESUSEN DEIA AHAZTU:
ELIZAKO KIDE IZAN LURREKO PERTSONA GUZTIEI
DUINTASUNEZ BIZITZEN LAGUNTZEKO ETA, APURKA-APURKA,
MUNDU BERRIA ERATZEKO SENIDETASUNEAN ETA BAKEAN...
BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ... AHAZTU GABE.

I. ERANSKINA

I




II



I. ERANSKINA

III



IV



I. ERANSKINA

V



VI



I. ERANSKINA

VII



II. ERANSKINA

BALOREAK, "ELKARTASUNA"

KALERA ATERA ETA PLAZAN NAIZ,
LAGUNEN ESPEROAN.
BOSTEKOA EMAN ETA INDARTSU SENTITZEN NAIZ
LUNA AGERTU ZAIDAN MOMENTUAN.

BAKARRIK IKUSI DUT MUTIL BAT,
BERRIA OMEN DA HERRIAN,
EZ NUKE NAHI NIK LEKU BERRI BATEAN
ADISKIDERIK IZAN GABE BIZI.

[x2]

UOO

BATERA INDARTSUAGO GARA.
ARAZORIK BADUZU ZATOZ GUREKIN,
DENOK IZANGO GARA BALOREAK

IRRIBARRE HANDI HAU ZUENA DA,
MILA ESKER BENETAN.
SOR DEZAGUN, BA, MUNDU BERRI BAT HEMEN
DENONTZAT LEKUA IZANGO DUENA.

UTZ DITZAGUN GAILUAK ETXEAN
ETA ERAIKI TXABOLA BAT.
AMETSEN SORLEKUA IZANGO DA-ETA.
ZU ERE ONGI ETORRIA IZANGO ZARA.

[x3]

UOO

BATERA INDARTSUAGO GARA.
ARAZORIK BADUZU ZATOZ GUREKIN,
DENOK IZANGO GARA BALOREAK

1, 2, 1, 2, 3, 4!

SALGO A LA CALLE Y ESTOY EN LA PLAZA
ESPERANDO A MIS AMIGOS.
CHOCO LA PALMA Y ME SIENTO FUERTE
CUANDO APARECE LUNA

HE VISTO A UN CHICO SOLO,
DICEN QUE ES NUEVO EN EL PUEBLO,
NO QUISIERA EN UN NUEVO LUGAR
SIN AMIGOS TENER QUE ESTAR

[x2]

UOO

SOMOS MÁS FUERTES EL UNO CON EL OTRO.
SI TIENES PROBLEMAS, VEN CON NOSOTROS,
TODOS SEREMOS VALORES

VUESTRA ES ESTA GRAN SONRISA,
MIL GRACIAS DE VERDAD.
CREEMOS PUES UN NUEVO MUNDO AQUÍ
EN EL QUE HAYA ESPACIO PARA TODOS

DEJEMOS LOS MÓVILES EN CASA
Y CONSTRUYAMOS UNA CABAÑA.
SERÁ LA CUNA DE NUESTROS SUEÑOS.
Y AHÍ TÚ TAMBIÉN SERÁS BIENVENIDO.

[x3]

UOO

SOMOS MÁS FUERTES EL UNO CON EL OTRO.
SI TIENES PROBLEMAS, VEN CON NOSOTROS,
TODOS SEREMOS VALORES

1, 2, 1, 2, 3, 4

III. ERANSKINA

1 KOR 12, 12-27

HONELA AZALTZEN DIGU SAN PAULOK JESUSEK NAHI ZUEN ELIZA NOLAKOA
DEN. GORPUTZAREKIN ETA GORPUTZ-ADARREKIN ALDERATZEN DU...




Gorputzak, bat izan arren, atal asko ditu, baina atal guztiek, asko izan arren, gorputz bat osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristoren Elizarekin ere.

Gorputza, izan ere, ez du atal bakarrak osatzen, askok baizik. Oinak «Eskua ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena» esango balu, ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Eta belarriak «Begia ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena» esango balu, ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Gorputz guztia begi balitz, non entzumena? Eta dena belarri balitz, non usaimena?

Baina Jainkoak bere tokia jarri zion atal bakoitzari gorputzean, berak nahi bezala. Denak atal bat balira, zer-nolakoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, ordea, bat bakarra. Begiak ez diezaioke eskuari esan: «Ez dut zure beharrik»; ezta buruak ere oinei: «Ez dut zuen beharrik». Aitzitik, makalenak iruditzen zaizkigun gorputz-atalak beharrezkoenak dira; eta duintasunik gutxieneko iruditzen zaizkigunak, itzal eta begirune handienaz inguratzen eta zaintzen ditugu. Honela, atal batek min duenean, min dute atal guztiek berarekin; eta atal bat onetsia denean, poza dute beste guztiek berarekin.

Zuek Kristoren gorputz zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal.

IV. ERANSKINA



V. ERANSKINA

JOLASAK

"BALIOEN ENTSALADA"

Hainbat erataraz jolas daiteke. Hauxe da mailarik errazena: partaide bakoitzari balio bat jasotzen duen irudi edo txartel bat eman. Ondoren, katekistak bi balio esango ditu eta horiek dituzten (esate baterako, «konfiantza eta errespetua») mutiko eta neskatuek lekuak trukatzeko dituzte. Baina, katekistak «balioen entsalada» esaten badu, neska-mutiko guztiak altxatu eta lekuz aldatuko dira. Hainbat txandaren ostean, partaideek irudi edo kartelak truka ditzatela, balio desberdina emanaz. Jokoa apur bat korapila daiteke, esate baterako: haur bakoitzari zein balio den ikusten utzi, baina, ondoren, txartela edo dena delakoa kendu delako balio hori inongo irudiren laguntzarik gabe buruan gorde dezaten.

Lagungarriak: balioen txartelak (konfiantza, errespetua, elkartasuna, adiskidetasuna, harrera, batasuna, lankidetzaz, elkartasuna, maitasuna, zerbitzua, enpatia, alaitasuna, doakotasuna, ontasuna...).

KONFIANTZA

ERRESPETUA

ELKARTASUNA

ADISKIDETASUNA

ANEXO V

HARRERA

BATASUNA

LANKIDETZA

MAITASUNA

ALAITASUNA

ZERBITZUA

ANEXO V

ENPATIA

DOAKOTASUA

ONTASUNA

ENTZUNA

"JESUSEK DIO"

Beharbada ezagunago egiten zaigu "Simonek dio" delakoa; joko horren moldaketa da. Mutiko eta neskatoei argi utzi behar diegu ekintza burutzeko ezinbestekoa dela "Jesusek dio" entzutea. Esate baterako: "Jesusek dio eskuineko hanka uki dezagula". Batzuetan, "Jesusek dio" ez dugu esango, adi dauden ikusteko. Beste aukera bat, haurrak izan daitezela protagonista eta jarraibideak eman ditzatela katekistarekin batera.

"Jesusek dio" ideiak:

- Elkarri irribarre egin diezaioguna
- Elkarri bakea opa diezaioguna
- Aldamenekoarekin buelta bat eman dezagula gelan
- Eskuinekoari bostekoa eman diezaioguna
- Ezkerrekoarekin aulkia alda dezagula
- Begiaz keinu egin dezagula
- Elkarri maitasunez begira diezaioguna
- Elkarri gauza politen bat esan diezaioguna

ANEXO VI

BATASUNA

Batzuetan, bananduta egiten ditugu gauzak, bakoitza bere airera dabil. Baina guk elkarrekin ibili nahi dugu, orduan ... dugula diogu.

AMISTAD/AMIGOS

Ikastetxean, eskolaz-kanpoko jardueretan, auzoan, parrokiako taldean ditugu, eta primeran pasatzen dugu beraiekin.

TOPAKETA

Nola deitzen diogu zerbait ospatzeko lagun asko biltzen duen jarduerari?

GAITASUNA

Zerbait egiteko gauza garela adierazten duen hitza. Honako hau egiteko g... dugu

AUSARDIA

Ausartzen ez garenean, beldur ematen digunean, azkenean, zerbait egiten badugu, zer erakutsi dugu?


RESPETO

Zer eskatzen dugu entzun gaitzaten, arreta jar diezaguten, uler gaitzaten?



AYUDA

Zer eskatzen dut zerbait egiten ez dakidanean edo zerbait egiteko zailtasunak ditudanean?



VII. ERANSKINA

2022KO GARIZUMA-ALDIAN... BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ.
EGIN DEZAGUN OTOITZ ...

AURTEN ERE, JESUSEN HERIOTZA ETA BIZTUERA OSPATZEKO
PRESTATU NAHI DUGU.

ELIZAK GARIZUMA-ALDI DEITZEN DIO PRESTAKETARAKO ALDI HONI
ETA HAUSTERRE-EGUNEZ HASTEN DA HAUTSAREN EZARPENAREKIN.

KATEKISTEN LAGUNTZAREKIN,
ALDI HAU ENTRENAMENDU BEZALA BIZI NAHI DUGU,
GEUK ERE JESUSEN BEGIRATZEN ZUEN BEZALA BEGIRA DEZAGUN.

FRANTZISKO AITA SANTUAK
"ELKARREKIN BIDE EGITERA" DEITZEN GAITU ELIZTAR GUZTIOK,
ELKARREKIN PENTSA DEZAGUN ZER NOLAKO ELIZA,
PARROKIA, TALDE... NAHI DUGUN.

LAGUN IEZAGUZU GURI,
ELKARTEKO TXIKIOI, NOLAKO ELIZA NAHI DUGUN
GURE NAGUSIEI ESAN DIEZAIEGUN.

GURE NAGUSIEK BERRESKURA DEZATELA GU BEZALA
HAUR IZAN ZIRENEKO FRESKOTASUN ETA IRUDIMENA.
ETA AMETS EGIN DEZATELA BETI BERAIENTZAT ETA GURETZAT
NAHI DUTEN ELIZA, ETORKIZUNERAKO ELIZA.

EZ DEZATELA JESUSEN DEIA AHAZTU:
ELIZAKO KIDE IZAN LURREKO PERTSONA GUZTIEI
DUINTASUNEZ BIZITZEN LAGUNTZEKO ETA, APURKA-APURKA,
MUNDU BERRIA ERATZEKO SENIDETASUNEAN ETA BAKEAN...
BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ... AHAZTU GABE.

